

Ortzadar musikatua

Jon Arretxek '7 Kolore' liburua berrargitaratu du, musikaz eta ilustrazio berriz lagunduta

Gorka Erostarbe Donostia

Jende askok esan izan omen dio bere bidaia libururik onena dela. Berak, aldiz, onena den ez dakiela dio, baina bai «oso berezia, estimatua eta sentimenduz betea». Hala ere, zerbait falta zitzaioela pentsatu izan du idatzi zuenetik. Zerbait hori musika da. Baina azkenean lortu du buruan zuen «ametsa» betetzea, jatorrizko lana argitaratu zenetik ia hamar urte igaro direnean. *7 Kolore* disko-liburua argitaratu du Erein argitaletxearekin, duela hamar urte argitaraturiko liburua zazpi kanturekin eta ilustrazio berriei osatuta.

Munduan barrena egindako hamaika bidaiatan bizi izandako esperientzietatik abiatuta idatzi zuen Jon Arretxek (Basauri, Bizkaia, 1963) *7 Kolore* liburua (Elkar, 2000). Zazpi atal zituen lan hark, koloreka sailkatuak, eta kolore bakoitza sentimendu bati loturik: beltza, grisa, horia, gorria, berdea, urdina eta zuria.

Ortzadarra erabat osaturik ikusteko musikaren falta sentitzen zuen Arretxek. Eta, horretarako, Francisco Ibañez Irribarria musikariarengana jo zuen, Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatoriotik ezagutzen baitzuen: «Musika sortzeko konpositore ona behar nuen, ni ikasle nintzen Gasteizko Kontserbatorioan, eta bera zuzendaria zen. Berari proposatu nion kolore bakoitzarekin pieza bat sor zezala, piano eta ahotserako. Animatu zen, eta egin zuen. Izugarritzko lana egin du. Uste dut bete-betean asmatu duela kolore bakoitzaren sentimendua islatzen». Liburuko testu bakoitzean oinarrituriko zazpi kantuen hitzak Arretxek berak idatzi zituen,

eta handik lortu zuen inspirazioa Ibañez Irribarriak. Arreta berezia eskatzen duen musika da, Arretxeren hitzetan. «Ez da musika erraza edo komertziala. Beste era batera entzun behar da musika hau, hitzak ondo dastatuz...».

Francisco Ibañez 1984tik da Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioko irakaslea, eta 1997-2006ko tartean bertako zuzendari izan zen. «Oso modu bitalean egin dugu lan, eta niretzat oso aberasgarria izan da. Musika kultura da sortu dudana. Schumman, Schubert edota Escuderoen oihartzuna duten piezak dira. Ezin du edozeinek kantatu, baina nik banekien nork kantatu behar zuen, eta bakoitzaren ezaugarriak ere kontuan izan ditut». Zazpi piezen partiturak ere biltzen ditu lan berriak.

Behin musika izanik, zazpi pieza horiek jo eta kantatuko zituztenak behar zituen Arretxek, eta horretarako ere ezagutzen zuen jendearen konfiantza «baliatu» zuen. Iñaki Belasko piano jotzaileak jo zuen pianoa grabazio saioetan. Gaur egun piano laguntzaile eta erreperitorista da Bilboko Kontserbatorioko kantuko eskolan. Kantariak Olaitz Saitua sopranoa, Enrique Campos tenorra eta Jon Arretxe bera, ahots baxu modura, izan dira.

Arretxeren idazle jarduna ezaguna da, baina bestelako trebetasun artistikorik ere badu; musikan esaterako. Pianoko ikasketak Bilboko Kontserbatorioan egin zituen, eta kantukoak Gasteizko eta Bilboko Kontserbatorioetan. Besteak beste, Ainhua Merzero eta Olatz Saitua izan zituen irakasle. Gaur egun, Ricardo Visus irakaslearen hobekuntza eskolak jasotzen ditu.

Zuriari eta beltzari dagozkien kantuak abestu ditu Arretxek. «Beltzak eta zuriak, hurrenez hurren, ibilbidearen hasiera eta amaiera markatzen dute, eta age-rian uzten dute zein desberdina den heriotzaren ikuspegia kultu-



Jon Arretxe, Cristina Fernandez eta Francisco Ibañez. ANDONI CANELLADA / ARP

ra batean edo beste batean: bidearen amaiera iluna Mendebaldean, edo beste argi bateranzko abiapuntua Ekialdean». Grisari (esperantzarik eza) eta urdinari (harmonia) dagozkionak Olatz Saituak kantatu ditu. Horiari (argia eta nerotasuna) eta berdeari (es-

eta kantariekin. Aurrenekoa Hondarribiko Zuloaga aretoan egingo dute (Gipuzkoa), abenduaren 18an.

Musika ez da *7 Kolore*-ren bertsio osatuak dakarren berrikuntza bakarra. Cristina Fernandezekin zituen iatorritzeak...

Mohamed Txukriren 'Ogi hutsa' euskaratu du Aranzazu Royo Manterolak

Claudelen 'Linh jaunaren biloba' eta Christieren 'Stylesko gertaera misteriotsua' ere atera ditu Igelak

G. E. Donostia

Arabieratik zuzenean euskaraturiko liburua da Aranzazu Royo Manterolak itzulitako *Ogi hutsa* (Igela). Mohamed Txukri idazle marokoarraren (1935-2003) lanik ezagunena da nazioartean, ez batera eragozpenik gabe sona eman ziona.

Rif eskualdean jaio zen, eta umetan Tetuanera eta Tangerre-ra joan zen, familiak emigratu behar izan zuenean, miseria eta gosea zirela eta. Tangerko kaleko ume alderrai bihurtu zen 11 urterekin. Lan xumeak eginez eta bizi-modua nola edo hola ateraz bizi izan zuen haurtzaroa, gose, indarkeria, prostituzio eta drogazaleen giroan. Hogei urterekin ikasi zuen arabiera irakurtzen eta idazten, kartzelan lehenik eta Laraxen gero, handik aterata. Haren ama hizkuntza rifeza zen, berbereraren dialekto bat.

Ogi pixka bat lortzea ere zail zitzaien garaia ekartzen du gogora *Ogi hutsa* nobela aztoragarri eta gordinak—*Al-khubzal-haafij* jatorrizko izenburuan—. Eleberri autobiografikoa da, trilogia baten lehen alea, berak bizi izandakoak modu xehe eta gordinean kontatzen dituena. Marokon debekatua egon zen, gordintasunagatik, eta debeku hori ez zen baliogabetu 2000. urtera arte.

Aranzazu Royo Manterolak arabiera ikasi zuen, eta Txukriren liburua egoki ikusi zuen lehen itzulpen liburua egiteko. Jatorrizko hizkuntzaz gain, frantses, ingeles eta gaztelaniazko itzulpenak ere baliatu ditu lana euskarara ekartzeko.

Beste bi liburu

Txukriren liburuz gain, beste bi liburu ekarri ditu euskarara Igelak. Agatha Christiek idatzi zuen lehen eleberria da *Stylesko gertaera misteriotsua*. Nobela horretan sortu zen gerora hainbeste joko eman zion Hercule Poirot detektibe ospetsua. Aloña Zabaletak eta Usoa Wyssenbachek egin dute itzulpena.

Bere literatur ibilbidea 37 urte pasatxo zituela hasi zuen Philippe Claudel idazle frantziarraren (Nancy, 1962) *Linh jaunaren biloba* nobela ere argitaratu du Igelak, Itziar Diez de Ultzurrunen itzulpenarekin.

www.euskalherriko
PLaza.com



Gainera, ekoizle hauen produktuek opariak dituzte!
Izakinak agortu arte.

Lanku maluta

